

Lantoki teknifikatuetan azaldu da gaitza

Laneko gaitz berriak sortzen hasi dira gaur egun egiten diren eraikinetan. Esate baterako, lipoatrofia, hanketako gantz ehuna galtzea eta ondoez arina eragiten duen gaitza da. Gaixotasun horrek emakumeei eragiten die batik bat.


DANIEL UDALAITZ

LIPOATROFIA dagoeneko azaldu da Euskal Herriko lantokietan. Lanak sortutako gaixotasuna izan arren, oraindik ez da halakotzat jotzen; bai ordea lan istripuzat. Joan den uda baino lehen, Lakuako Gobernuak enpresa publiko nahiz pribatutan azaldutako bederatzi kasu posibleren berri izan zuen. Horietatik bost Eusko Jaurlaritzaren Donostiako egoitzan antzeman ziren, hiru Zornotzako enpresa batean, eta beste bat Gasteizko Udalean.

Espainiako Estatua kontuan hartuta, Katalunian sortu dira kasu gehienak, hain zuzen ere joan den uda baino lehen izandako 650 kasuetatik 619 antzeman ziren bertan. Hori dela eta, Katalunia gaitz berri hau ikertzen hasi da eta gaixotasun berriaren aurka borrokatzeko protokoloa sortu du. Horren ildotik, Eusko Jaurlaritzak, Gurutzetako Ospitaleko Dermatologia Zerbitzua-ekin lankidetzan, lipoatrofiaren aurkako protokoloa katalana martxan jarri eta egokitu zuen abuztuaren hasieran, batik bat emakumeei gantz ehunaren galera dakarkien gaitz honen agerpenari aurrea hartzeko.

Zerk eragiten du lipoatrofia?

Adituek diote ehun horien galera eragiten duena bi faktore elkartzea izan litekeela: batetik, ingurumeneko lehortasuna eta bestetik, energia elektrostatikoko edo elektrikoko eremuen pilaketa. Gaitzak gehiago eragiten die emakumeei, hanketan gantz ehun gehiago izaten dutelako gizonak baino.



Katalunian jadanik lanbideak eragindako gaixotasuntzat jotzen dute, nahiz eta printzipioz gaixotasun larria ez izan eta ez den beharrezkoa izaten baja hartzea. Adituen arabera, ondorez arintzeko nahikoa da eremu elektrostatikoa urruntzea; dena dela, zenbait kasutan kortikoidak ere erabil daitezke.

Protokoloa nola aplikatu?

Eusko Jaurlaritzak lipoatrofia kasu-erako egokitu duen Kataluniako protokoloak 21 orrialde ditu eta bi galde-sorta, horrelako kasuak azaltzen direnean prebentzio zerbitzuek ezaugarri klinikoak eta lan baldin-

tzak beroietan jaso ditzaten. Protokoloaren helburua da lipoatrofia kasuetan nola jardun behar duten azaltzea medikuei eta mutualitateetako langileei. Lehenik eta behin gaitza antzeman eta, ondorioz, diagnostikatu eta lan istripu gisa tratatzeko argibideak ematen ditu. Eta, azkenik, lanpostuetako baldintzen jarraipena egin eta ikertzeko inprimakiak dakartza.

Bulegoetan karga elektrostatikoko sortutako arazorik egonez gero, protokoloak airean %50eko hezetasun erlatiboa bermatzeko aholkatzen die enpresei. Instalazio elektrikoek lan mahaian izaten duten eragina saihe-

Erne eraikin itxi eta aireztatu gabeekin

Lipoatrofiak zerikusi handia du eraikin eta lantoki berri oso teknifikatuak egiten ari diren garai honekin. Hain zuzen ere, diagnostikatutako kasuen %84 eraikuntza berriko eraikin itxi oso teknifikatuetan lan egiten duten emakumeenak dira. Bestalde, Kataluniako eta EAEko protokoloetan azaltzen diren zenbait aholku 190 kasu ikertu ondoren erantsi dira. Izan ere, ikertutako kasuen %90 kontaktuan egon ziren energia elektrostatikoko karga handiena biltzen duten

azalerekin, mahaiekin esate baterako. Kasurik gehienak aireztapen naturalik gabeko eraikin itxietan sortu dira.

Euskal Herrian sei kasu antzeman dira enpresa publikoetan. Eusko Jaurlaritzaren Donostiako eraikin berrian Hezkuntza Saileko bost emakumezko funtzionario kaltetu dira eta Gasteizko Udalean seigarrena. Sektore pribatuan, hiru emakume dira kaltetuak Zornotzan, Boroa inguruan eraikitako bulegotarako pabilioi berrian.



DANI BLANCO

teko, kableen isolamendua hobetu eta lur hartuneak egiteko aholkua ere ematen du. Laneko gaixotasun berri honen 190 kasu ikertu ondoren sartu dituzte aholku horiek Kataluniako eta EAEko protokoloetan.

Protokolo berriak derrigortuta, lehenengo kasua diagnostikatzen denean enpresak kasu berriak bilatu beharko ditu. Eta beste kasu bat azaltzen bada, prebentzio zerbitzuari abisatu beharko dio, zerbitzu hori espazioaren ebaluazioa egiten has dadin. Osalani ere abisatu beharko zaio. Lan osasuneko institutu horrek, enpresara joan eta medikuntza-galdeketa eta gaixotasuna ager litekeen lanpostu guztietako baldintzen inguruko galdeketa bete beharko du. Protokoloak dio gaixotasuna azaldu izanaren arrazoa lantokia dela susmatzen bada –leku eta lan denbora berean kasu bat

baino gehiago agertu direlako— gaixoa mutualitatera bidali behar dela. Bestalde, gaitz honi aurrea hartzeko eta aurre egiteko protokoloa negoziatzeko eskatu beharko liekete sindikatuek enpresei.

Lege aldaketa

Berdintasunerako Lege berriak Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea aldatu du, langileen sexuari lotutako osasun galerak antzeman eta halakorik ez gertatzeko. Mintzagai dugun lipoatrofia erdizirkularra da, hain zuzen ere, lege aldaketaren lehenengo aplikazioetako bat, gaitz arin honen kasuan sexuaren eta lan arriskuaren arteko kausalitatea ezartzea lortu baita. ■

ILLARRA
Jatetxea



Illara bidea 97
20009 Donostia

Tel.: 943 21 48 94

www.restauranteillarra.com
info@restauranteillarra.com